

IZENA:

DATA:

TRIKUA GABONETAN



Film labur honek erakusten digu pertsonok desberdin egiten gaituzten ezaugarriak ditugula, eta horiek ez dutela bereizketarako arrazoi izan behar, aberastasunerako baizik.

Desberdintasunak errespetatzeak tolerantia izaten laguntzen digu.

Beti bilatu behar dira arrazoiak, besteak integratzeko eta onartzeko, gauza on asko ekarriko dizkigutelako

1. Zerk unkitu zaitu gehien film labur honetan?

2. Film laburreko zein animalirekin identifikatzen zara?

3. Ordenatu esaldiak.

- Urtxintxa bat konponbidea bilatzen ari da, trikua gainerako animaliekin jolasteko gai izan dadin. Bere arantza zorrotzak kortxozko zatitxoekin babesten ditu.
- Trikua eskola berri batera heltzen da eta lagun berriak egiten saiatzen da.
- Hemendik aurrera, trikua berezi egiten duten arantzak, ez dira izango bere kideekin jolastu ahal izateko traba.
- Trikuaren lagunak ez dute berarekin jolastu nahi bere arantzek traba egiten dutelako. Trikua oso triste eta baztertua sentitzen da.

4. Hausnartu.



Demagun zure gelan irakaslearen azalpenak ulertu ez dituen ikasle bat dagoela. Irakasleak azalpena berriro errepikatu behar du berak ere uler dezan. Egoera honen aurrean beste ikasle batek aspertu aurpegiak jartzen ditu, puzka dabil...

5. Nola uste duzu sentituko dela ikasle hori zerbait ulertzen ez duen bakoitzean?

6. Nola lagun diezaiokegu?
